

Herritarren bizipenak bildu eta publiko egin nahi dituzte

36ko gerrari eta frankismo garaiari buruzko testigantzak jasotzen ari da Irungo Nicolas Guerendiain elkarteak

Bildutako testigantzak Irungo Artxibategian egongo dira denen eskura

Eihartze Aramendia Irun

Nicolas Guerendiain Irungo Errepublikarrak elkarteak urteak daramatza balio errepublikanoak babesten, zabaltzen eta sustatzen. Horren bidetik, irundarren testigantzak biltzeari ekin dio, 36ko gerraren eta frankismoaren gainekoak. Irunen gertatutakoak eta irundarrek kontatuta.

Horretan buru-belarri Aiala Oronoz dabil; bera da proiektuko koordinatzailea eta testigantzak biltzen eta jasotzen dabilena. «Gaita oso konplexua eta zabal da, eta denbora gure kontra bada ere, egin beharreko kontua da hau. Lan asko dago egiteko», adierazi du.

Zehazki, Irungo gertaerei buruzko gauzak bildu nahi dituzte: «Hainbat alor aurkitzen dira. Gerrari buruz, hiriarren defentsa nola antolatu zen jakin nahi dugun besteak beste. Zein erabilerak egin zen eraikuntza publikoan zein pribatuena, esaterako. Diktadura garaian Irunen euskarekin zer gertatu zen ere jaso nahi dugu; izan ere, eman ziren erreprezioak modu askotakoak izan ziren, erreprezio kulturala ere eman zen eta hori zein modutan bizitu zuten jaso nahi dugu».

Kontzentrazio esparruetan zenbat irundar egon ziren ere ez dakite: «Gursen, Frantziako kontzentrazio esterruan, 300 irundar

inguru daude zerrendatuak. Estatuan eta estatutik kanpo zenbat irundar egon ziren oraindik ez dago ofizialki zerrendatuta eta jende pila bat egon zela badakigu».

Depurazio prozesua ere jaso nahi du elkarteak. Oronozek azaldu duenez, prozesu horren bidez udal langileak hartzen zituzten eta espediente bat irekitzen zieten. Lana erreperatu ahal izateko, pertsona bakoitzak naziona-



Testigantzekin beste modu batera jaso ezin dena jaso nahi dugu; torturen kasua, adibidez»

«Memoria gauza intimo bat da. Norberak erabakitzen du pribatua edo publikoa den»

AIALA ORONOZ
Nicolas Guerendiain elkartearen kidea

len alde zeudela adierazi behar zuten eta gure errepublikarrean ez zutela parte hartzerik eduki. «Batzuek euren lana berreskuratu zuten, baina askok galdu egin zuten. Irunen 85 kasu daude kontatuak, baina askoz gehiago daude», azaldu du.

Alor batzuetan, ordea, dokumentaziorik ez dagoela nabar-



Nicolas Guerendiain elkarteak urtero omenaldia egiten die Pikoketan fusilatutako errepublikarrei.

mendu du: «Torturaren kasuan, esaterako. Bildu nahi ditugun testigantzekin beste modu batean jakin ezin dena jaso nahi dugu».

Testigantzak, publiko

Ez dute lan makala elkarreko kideek; izan ere, aktiboki parte hartu zuen jende gutxi geratzen da. Dena den, Irunen familia guztiak gaiari buruz zerbait esateko badutela adierazi du Oronozek, eta kontatu nahi duenak euren gaita jatzeko eskatu du.

Bizipen horiek kontatzeko nahia ere ez dela erraza dio: «Norberaren bizipenei buruz hitz egiten ari gara azken batean eta memoria gauza intimo bat da. Norberak erabakitzen du pribatua edo publikoa den».

Nicolas Guerendiainekoek, noski, testigantza horiek guztiak publiko izatea nahi dute eta horretarako baimena ematen dutenekin bildumatxo bat osatuko dute. Horretarako, Irungo Artxibategian daude elkarrekin; bildutako guztia, bideoak barne, bertan gordeko dituzte ikerlari, hiritarren odota interesa duten ororen esku egon dadin. Sei hilabeteren buruan bertan egongo direla aurreikusten dute.

Berez Irunekin zerikusia duten testigantzak jasotzen ari badira ere, ez daude itxita: «Horrelako testigantzak jasotzeko aukera ezin dugu alferrik galdu. Gaiari buruz zerbait kontatu nahi duenak elkartera jotzea besterik ez du».

e earamendia@hitza.info

Testigantzen balio judiziala ez dute baztertzen

Memoria historikoaren dimentsio judizialean borrokan ari dira gai horren inguruan dabiltzanak

E. Aramendia Irun

Memoria historikoak dimentsio asko ditu; horietako bat dimentsio historikoa da, baina politikoa eta judiziala ere badira. Horretaz jakitun, Nicolas Guerendiain Irungo Errepublikarrak elkartearen kideek ez dute baztertzen jasotzen ari diren testigantzen balio judiziala.

Bide horretatik, Aiala Oronozen esanetan, elkarrekin bakoitzarekin ikusi beharko dute hori. Testigantzak liburu eta ikus-entzunezko soiletan bakarrik ez geratzea nahi dute. «Elkarrekin aldetik, behintzat, badago asmo hori», nabarmendu du.

Momentu «garrantzitsua»

Estatu mailan memoria historikoaren prozesuan lan asko egiten ari direla azaldu du Oronozek, eta

orain gai honekiko momentu «garrantzitsua» dela gaineratu du. Nazio Batuen Erakundeak ateratako txostenari erreferentzia egin dio: «36tik demokraziara arte gertatu zenari buruko informazioa jasotzen egon zen batzorde bat. Hori jasota, Espainiako Estatuari orain arte memoria historikoari buruz izan duen jarrera aldatzeko eskatu dio». Borondatek, ordea, ez dagoela adierazi du. Memoria historikoaren legea egin, egin zela gogorarazi du, «baina oso ari na da».

Memoria historikoa lantzen dutenek «memoria, justizia eta erreparazioa» eskatzen dute: «Egia jakiteaz arduratuko dena estatua bera izatea da eskatzen dena eta politikoki hor dago arazoa, egia ez da atera nahi. Estatu mailan justizia egiteko marko hori ez da eraiki oraindik».

Judizialki, Espainiatik kanpo [Argentinan] egiten ari dira epaiketak, lege batek hala ahalbidertuta. Orain horretan dago kontua: «Egia ez baduzu ezagutzen nola egin justizia, eta erreparazioa nola egin ez bada justiziarik eziten? Borroka horretan da».

Egutegirik gabe geratu nahi duzu?

HITZAren egutegia 2014
Jaso ezazu doan



- Gazte informazio bulegoan (Irun)
- Liburutegian (Hondarribia)
- Hitzaren erredakzioa (Errenteria-Oreata)

OARSOKO hitza

